



Selektibitatea eta Baxoa

Unibertsitaterako sarbide irizpideak
ezbaian



Mahai-ingurua Josu Agirre ♦ Maria Luisa Jaussi ♦ J. F. Lukas

Iritziak Guillermo Etxebarria ♦ Ramón Flecha

Zer neurtu eta nola ebaluatu ikasleak

Selektibitateak Hegoaldean, Baxoak Iparraldean, goi mailako gradu bat egin nahi duten milaka ikasleren etorkizuna baldintzatuko dute egunotan. Egun gutxitan egiten diren azterketa masiboak dira, aldaketarako tarte mugatua uzten dutenak eta Europako herrialde askotan egiten dituzten errebaliden antzekoak. Bi norabidetan baldintzatzen du hautaprobak: aurretik, Batxilergoko ikasketak azterketa gainditzera bideratzen dira; ondoren, karreratarako hautaketa azterketaren irizpideen arabera egiten da. Beraz, hautaprobak batez ere edukiak neurtzen dituela kontuan hartuta, konpetentziek apenas duten lekurik Batxilergoan. Ordea, horiek aintzat hartzen dituen bestelako ikasleak demandatzen ditu unibertsitatean Boloniaren etorrerak. Nola egin aurre kontraesan horri? Mahai-inguruaren abiapuntua dugu. Osatzeko, unibertsitatea euskaraz egin nahi duten Iparraldeko herritarrek dituzten zailtasunez artikulua idatzi du Guillermo Etxebarriak, eta nazioarteko unibertsitate prestigiotsuek darabiltzaten hautaketa irizpideez Ramón Flechak.

■ **Mikel Garcia** / Testua eta mahai-inguruaren gidaritza
Dani Blanco / Mahai-inguruko argazkiak


LARRUN Selektibitatea eta Baxoa, zer motatako azterketak dira? Zein helburu dute eta zer hartzen dute kontuan?

JOSU AGIRRE: Selektibitatean oso ariketa klasi-koak dira eta azken urte hauetan aldaketa nahia-
edo agertu du unibertsitateak, baita Hezkuntza Sailak ere, gaur egun proba hori bien artean antolatzen dutelako. Baina aldaketa horiek oso konplexuak dira, zaila da hain azterketa masibo-

an aldaketak sartzea. Planteatzen ari den azkena da 2012rako atzerriko hizkuntzan ahozko azterketa jartzea. Hasieran ematen zuen aldaketa interresgarria izan zitekeela gauza berriak arakatzen hasteko, baina azkena entzun duguna da oso aldaketa xumea izango dela, entzutezko ulermen ariketa bat baino ez dela sartuko, eta ez norberak ekoiztutako ahozko ezer, azterketak duen konplexutasunagatik eta hain masiboa izateagatik. Nola egin milaka ikaslerekin?

Azaleko argazkia: Jagoba Manterola / Argazki Press · **Azala:** Garbine Ubeda · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Xabier Letona. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45 **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAko 2.278. zenbakiarekin banatua, 2011ko maiatzaren 29an)



Ebaluazioak prozesuan duen garrantzia nabarmendu zuten Josu Agirrek, Maria Luisa Jaussik eta J.F. Lukasek.

J. F. LUKAS: Bi arazo bereizi behar dira: arazo soziologikoa eta arazo teknikoak. Arazo soziologikoa litzateke zertarako den hautapropa hori edo zer den selekzionatu nahi duena. Unibertsitatean gertatuko balitz nahi adina leku dagoela ikasle guztientzat, hautapropa horrek helburu bakarra izango luke: zein da gai unibertsitatera joateko? Urteak joan urteak etorri, ikusten dugu %90ak baino gehiagok gainditzen duela azterketan EAEn, beraz hori ez du neurtzen. Jartzen duena da zer nota ateratu duzun eta horren arabera zein aukera dituzun gauza bat edo bestea ikastera joateko. Karrera batzuk modan jartzen dira eta ikasleek hori ikasi nahi dute, baina urte batek bestera ezin daitezke irakasle berriak sartu, fakultate berriak sortu, eta handik bost urtera horiek denak kanporatu. Zenbat arkitekto edo ingeniari edo... behar ditugu? Zenbat lizentziatu? Galdera hori ere badago arazo soziologiko

horren atzean. Eta beste arazoak, teknikoak, Josuk komentatutakoak dira: nola egiten dugun proba hori.

J. AGIRRE: Unibertsitaterako selekzionatzeko proba bat da, gradu ezberdinetara zein sartuko den antolatzeke. Baina badauka beste helburu bat ere: sistema homologatzeko funtzioa. Eta nik uste geroz eta indar gehiago eman nahi zaiola funtzio horri. Duela gutxi idatzia jaso dugu ikastetxeok, esanez Ikuskaritzak xehetasunez aztertuko dituela hautaprobako emaitzaren eta ikastetxean ematen diren emaitzen artean desberdintasun handia erakusten duten ikastetxeak. Europako nazio askotan, ez dago hauta-probarik baina errebalida dago, eta errebalidak batez ere funtzio homologatzailea dauka. Presioa handia da: hainbat gradutara sartzeko batez besteko oso altuak eskatzen dituzte, eta ikastetxe

batzuetan joera dago batez bestekoa pixka bat igotzeko, beraien ikasleek aukera hobeak izan ditzaten lehia horretan.

MARIA LUISA JAUSI: Kontua da %95ean dagoela proba gainditzen dutenen kopura, hortaz selekzioaren helburua ez da betetzen. Batxilergoak egiten du selekzioa, baina Batxilergoa gainditzen duten ia denek gainditzen dute Selektibitatea, eta azterketa hori bihurtu da sari bat: nota altuak dituztenek aukeratu dezakete nahi duten karrera, baina agian ez du zerikusirik aurretik ikasitakoarekin. Ez da selekzioa egiten maila altuko graduatarako, demandaren arabera ko hautaketa egiten da.

J.F. LUKAS: Bai. Adibidez garai batean Magisteritza Eskolak ikaslerik gabe zeuden eta gaur egun nota altuenetarikoa Magisteritzak eskatzen du, demanda handia dagoelako.

M.L. JAUSI: Eta Ikus-entzunezkoan ere nota oso altua eskatzen ari dira, demanda handia dagoelako, baina gero Selektibitateko ikasgai askok ez du zerikusirik karrera horretako edukiekin, beraz ez da selekzio bat karrera horretarako, lasterketa bat da.

J.F. LUKAS: Homologazioaren harira, aldaketak egin dituzte ikastetxeko notaren eta Selektibitatekoaren artean batez bestekoa ateratzeko bako-

M a h a i k i d e a k

■ **J. F. LUKAS**
EHUko irakaslea



Orion (Gipuzkoa) jaioa, 1963an. Pedagogian doktorea, Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatua eta Maisu-Maistra ikasketetan diplomatua, aditua da hezkuntzaren neurketan eta ebaluazioan. Egun, irakasle titularra da EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien fakultatean, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI-IVEI) Batzorde Zientifikoko kidea da. Ikerketa ugaritan hartu du parte, hainbat aldizkaritan publikatu du eta hezkuntzarekin (gehienetan hezkuntza sistemaren ebaluazioarekin) lotutako liburuak idatzi ditu, bakarka eta beste batzuekin.

■ **JOSU AGIRRE**
Beasain BHIko zuzendaria



Ataunen (Gipuzkoa) jaioa, 1956an. Filosofia eta Letratzen lizentziaduna da, eta Hezkuntza Guneen Antolakuntzan, Zuzendaritzan eta Kudeaketan diplomatua. 32 urte daramatza irakaskuntza munduan eta Bigarren Hezkuntzako katedraduna da Euskara eta Literaturan. BiHeren (Bigarren Hezkuntzako Zuzendarien Elkarte) eta FEDADiren (Federación Estatal de Asociaciones de Directivos de IES) sortzailea, Kalitatea hezkuntzan eta ikastetxearen autonomia proiektuan hartu du parte. Hainbat aldizkaritan eta kongresutan hartu du parte. Beasain BHIko zuzendaria da egun.

tzari ematen zaion portzentajea: lehen erdia eta erdia zen, eta badirudi gobernuak zenbat eta progreagoa izan Batxilergoko kalifikazioari garrantzi handiagoa eman beharko liokeela eta gutxiago Selektibitateari; eta eskuineko gobernuak alderantziz. Eta juxtu alderantziz da: lehen aipatu den presioa egia delako, baina non egin dezakete presio handiagoa gurasoek? Ikastetxe pribatu-kontzertatueta, ikastetxe publikoetan zerbait ona dutelako irakasle funtzionarioek: independentzia, ez daude gurasoen menpe, zentzu horretan. Eta ikusten da pribatuetatik datozen ikasleei publikoetatik datozenei baino gehiago jaisten diela batez bestekoa Selektibitateak; homologazio hori ere beharrezkoa dela uste dut.

■ MARIA LUISA JAUSSI

Ikas-komunitateko koordinatzailea



Portugaleten (Bizkaia) jaioa, 1960an. Psikologo eta pedagogo titulazioak ditu. CEI-IDCn gizarteratze programan hamar urte inguru egin ditu eta ISEI-IVEIn urte pare bat. Egun, Txur-dinagako Berritzegunean Hezkuntza Premia Bereziko aholkularia da gizarteratze programan eta EAE mailan Ikas-komunitate proiektuko koordinatzaile lanak egiten ditu. Horrez gain, Adarra Pedagogia Berritzeko Mugimenduko partaide ere bada.



Josu Agirre

“Orain arte neurtu dena da ikasleak dakiena; horretarako dago diseinatuta azterketa: zer daki ikasleak? Eta ematen du beste bide batetik jo beharko genukeela: zer egiteko gai da ikaslea? Ea ezagutza horiek testuinguru ezberdinetan erabiltzeko gai den. Horrek probaren ikuspegi aldaketa ekarri beharko luke”

J. AGIRRE: Unibertsitaterako sarrera kalkulatzeko Batxilergoan atera duzun notak %60 balio du eta hautaprobakoak %40. Eta kezka hori badago, baina inor ez da ausartu neurriak hartzera, nahiz eta oso nabarmen izan den kasuetan (bi puntu baino gehiagoko aldea Batxilergoko notaren eta hautaprobakoaren aldean) atentzioa deitu dioten ikastetxeari. Kezka hori konpontzea ez da erraza, dena den.

Homologaziorako azterketa da orduan. Baina horrelakoa izan behar du gero unibertsitatera zeinnek joan behar duen erabakiko duen azterketak?

J. AGIRRE: Orain arte neurtu dena da ikasleak dakiena; horretarako dago diseinatuta azterketa: zer daki ikasleak? Eta ematen du beste bide batetik jo beharko genukeela: zer egiteko gai da ikaslea? Ea ezagutza horiek testuinguru ezberdinetan erabiltzeko gai den. Horrek probaren ikuspegi aldaketa ekarri beharko luke. Kanpoko probak ere (PISA eta modu horretakoak) eta ebaluazio-diagnostikoak ikuspegi berri horretatik prestatuta daude. Hala ere, esan dudana moduan, ez da batere erraza hain azterketa handian fundamentuzko aldaketak sartzea, ez dut oso argi ikusten nola egin litekeen, baina bai ikuspegia aldatu beharko litzaiokeela ebaluazioari.



J. F. Lukas

“Orain arte unibertsitatean pertsona batek lizentziatura bat bukatu zezakeen bere eduki maila onargarritzat hartzen bazen, baina inoiz ez da kontuan hartu pertsona hori nolakoa den; gaizkilea bada, edo arrazista... Boloniarekin suposatzen da hori ere kontuan hartuko dela”

M. L. JAUSSI: Nik uste dut frogatuta dagoela azterketa hau ez dela selekziorako. Eta homologaziorako baldin bada, nahiz eta printzipioz ez zen bere helburua, beste bide batzuk pentsatu behar dira. PISA eta azterketa horiek adibidez gehiago balio dute homologaziorako, sistema ebaluatzeko. Eta ikasleek ikasi nahi duten ikasketaren arabera unibertsitaterako sarrera ahalbidetzeko, beste bide asko daude, aproposagoak. Europan, egiten dira antzerako azterketak, baina leku askotan beste baldintza batzuk ere eskatzen dira azterketaz gain, unibertsitatean sartzeko. Finlandian adibidez, Irakaskuntza karreran sartzeko proba pertsonalak egiten dira, enpatiarako, aniztasuna lantzeko... eta beharrezko diren beste hainbat gauzatarako duzun gaitasuna kontuan hartzeko. Edo AEBetan, ez dago halako proba orokorrik. Kolokan ipini behar da ea beharrezko den, ez ote litzatekeen jarri beharko ikasketa bakoitzari dagozkion gaitasunak neurtzeko beste irizpide batzuk, adibidez gaitasun horiekin lotuta ordura arte ikasleak egindako ibilbidea.

J.F. LUKAS: Baina AEBetan diruak asko mugatzen du. Han, lortzen dituzun beken arabera edo gurasoek duten diruaren arabera unibertsitate batera edo bestera joateko aukera daukazu, unibertsitate publikoak ere oso garestiak direlako, ez hemen bezala. Kontuak kontu, sistemaren bat behar da ikasleak bideratzeko; azterketa hau onena da? Ba ziurrenik ez, PISA eta halako probak nola egiten diren hartu behar dugu aintzat,

gaitasunak edo konpetentziak ebaluatu nahian. Edo hobe esanda, neurtu, neurtu egiten delako gehiago, ebaluatu baino. Azken finean, zenbaki bat ateratzen da. Zenbait gauzetan aurreratu da, atal espezifikoak deiturikoak daudelako orain eta horiekin ikasle bakoitzak aukeratu ditzake gero bere karrerarako baliagarriak izango diren ikasgaiak, horietan puntuazio gehiago ateratzeko. Hori da modu bat. Beste modua da zuk, Maria Luisa, komentatu duzuna: karrera bakoitzak jarri ditzala bere azterketa edo proba espezifikoak edo eskatu ditzala bere baldintza espezifikoak; batzuetan izango dira edukiak, bestetan konpetentziak eta bestetan ezaugarri psikologikoak. Baina horretan ez gara inoiz sartu. Orain arte unibertsitatean pertsona batek lizentziatura bat bukatu zezakeen bere eduki maila onargarritzat hartzen bazen, baina inoiz ez da kontuan hartu pertsona hori nolakoa den; gaizkilea bada, edo arrazista... ez da inoiz kontuan hartu. Orain, berriz, Boloniarekin suposatzen da hori ere kontuan hartu behar dela, unibertsitatea ez dela soilik prestakuntza akademikoa, integralagoa baizik. Esan behintzat esaten da, gero hori posible den edo ez, konplexuagoa da.

M.L. JAUSSI: Lehengoan lagun batek komentatzen zidan Ikus-entzunezko karreran arazo handiak dituztela, eskaera handia dela-eta nota altua eskatzen dutelako sartzeko, baina hor behar diren gaitasunak beste motatakoak dira. Ikasle sortzaileak nahi dituzte, eta hor hutsune handia du askok, ikasteko gaitasuna izan arren. Bestalde, Finlandiako unibertsitateko batek komentatu zuen Magisteritza ikasteko joera handiagoa dagoela emakumeen artean gizonen artean baino, eta geroz eta nota altuagoa eskatzen zutenez, ez zuten lortzen beraien asmoa: geroz eta mutil gehiago erakartzea. Horri buelta emateko, aipaturiko neurriak (psikologikoak, pertsonalak...) gehitu zituzten irizpideetan.

J. AGIRRE: Horrek, dena den, konplexutasun izugarriera eramango gintuzke: fakultate eta gradu bakoitzak bere sarrera proba egin behar duela esaten ari gara?

M.L. JAUSSI: Edo bere irizpideak zehaztu behar dituela...

J. AGIRRE: Debate hori Selektibitateari buruzko azken lege aldaketaren aurretik egon zen: ea guztientzako sarbide proba bakar bat antolatu behar zen ala fakultate bakoitzak berea. Nik ez diot abantaila ikaragarriarik aurkitzen bakoitzak berea egiteari, ikasleak erotu egingo genituzkeelako. Zenbat sarre-ra proba egin beharko litzuke ikasle batek? Niretzat egokia da unibertsitaterako sarrera antolatzeko zerbait homologatzailea izatea. Egia da aldaketa batzuk egiten ari direla gaur egun zenbait gradutara sartzeko, proba espezifikoak, koefiziente ezberdinak... Gorputz heziketarako, Arkitekturarako edo Itzulpengintza eta interpretaziorako, esaterako, proba bereziak daude, fakultate horietara sartzeko. Baina gradu bakoitzean proba bana egitea...

M.L. JAUSSI: Ni ez naiz ari esaten gradu bakoitzarentzat proba bat egin behar denik, esaten dudana da beste baldintza batzuk hartu beharko liratekeela kontuan, ikaslea beste irizpide batzuen arabera baloratu beharko litzatekeela.

Eta orduan zer egon beharko luke Batxilergoaren eta unibertsitatearen artean?

J. AGIRRE: Garbi dagoena da proba mota hauek badutela nolabait zenbait gaitasun neurtzeko balioa: jakintza gaiei lotuen dauden gaitasunak. Eta zeintzuk dira horiek? Lau gaitasun: hizkuntza konpetentzia, matematika, osasun eta zientzia alorra, eta artea eta historia motatakoak. Zer ez du batere neurtzen? Transbertsalagoak diren lau gaitasunak: ikasten ikasi, hiritartasuna eta elkarbizitza, ekintzailetasuna, eta konpetentzia teknologikoa edo IKT konpetentzia. Bai beharko litzatekeela zerbait unibertsitatean konpetentzia transbertsal horiek neurtzeko, gerta litekeelako, lehen aipatu den bezala, gradu titulu bat ateratzea eta lizentziatua izatea ahozko konpetentziarik batere izan gabe; ikastetxe batera klasea ematera joan eta ezin klaserik eman!



Maria Luisa Jausi

“Arazoa da konpetentziak neurtzeko ez dagoela eredurik. Hiritartasunaren proba egitea planteatu zenean, adibidez, asko kostatu zitzaien eredu homologatuak eta esperimentatuak lortzea. Zalantzak ditut sortu den probak beneratan neurtzen ote duen hiritartasuna”

M.L. JAUSSI: Hala da, eta gainera izendatu dituzunak oinarriko konpetentziak baino ez dira, karrera bakoitzak behar dituen konpetentziak baloratzera sartu gabe...

Nola baldintzatzen du Selektibitate azterketak Batxilergoa?

M.L. JAUSSI: Kanpotik begira (ni ez bainaiz Batxilergoko irakaslea), ematen du guztiz baldintzatzen duela, batez ere bigarren maila. Beraz, azterketak konpetentzia guztiak baloratuko balitu ondo egongo litzateke, baina batzuk bakarrik hartzen dituen kontuan, asko murrizten du Batxilergoan irakasten dena.

J. AGIRRE: Esperientziatik kontatuta, Batxilergoa oso etapa laburra da, bi urtekoa, lehenengo urtea ikasturte nahiko lasaia da, ez dago hainbeste presiorik, baina bigarren maila ia guztia eta jakintza ia guztietan (hautazkoetan izan ezik) bideratuta dago hautapropa modurik hoberean gainditzera. Horretarako, ikasturte guztia bideratzen da hautaprobaren planteatzen diren motako galderak erantzutera. Hori alda dezakegu? Oso zaila izango da, ikasleari eta familiari eskaini behar dioguna da unibertsitatera sarbide ahalik eta egokiena izateko modua, eta hori horrela izanik, prestatu behar ditugu hautapropa gainditzeko.

J.F. LUKAS: Proba batek mugatzen baldin badu ikas-irakaskuntza prozesuan egingo dena, zalan-tzan jarri beharko litzateke proba hori. Selektibitatearekin gertatzen da, eta orain Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan egiten ari diren ebaluazio-diagnostikoei ere arrisku hori izan dezakete. Alegia, azterketa batek baldintzatu behar badu prozesua, kontuz ibili beharko ginateke. Eta azterketa horiek mantendu egin behar badira, soluzio bat izan daiteke azterketa horiek hobetzea. Azterketek zenbat eta konpetentzia gehiago eta hobeto neurtu, ikas-irakaskuntza prozesua ere aberatsagoa izango da. Historiako azterketan, jo dezagun, galdetzen badugu urteei, pertsoneri eta gertakariei buruz, hau da memoria bakarrik lantzen badugu, ikas-irakaskuntza prozesuan ere memoria baino ez dugu landuko. Baina historiako azterketan arazo konplexuagoak jartzen baditugu eta ulertu nahi badugu zergatik gertatu zen hau edo hura halako urte-tan, horrelako kontuak landuko ditugu. Egungo probarekin, gai batzuetan sormena lantzen da (adibidez, testu komentario bat egiteko, testua beti berria izango baita), baina beste arlo batzuetan oso errepikakorrak dira galderak, baita matematikan eta zientzietan ere: matematikako buruketa mota zehatz bat galdetzen denean, esaterako, agian ez dut ulertzen buruketa, baina badakit zein pauso eman behar ditudan emaitza lortzeko. Irakaskuntza mekanizista horrek ez dauka inongo zentzurik. Konponbidea, esan bezala, azterketa hobetzea izan daiteke, konpetentziei lotuago.

Beraz esan daiteke azterketa gaizki planteatuta dagoela?

J.F. LUKAS: Gaizki dagoela esatea asko da, baina hobetu beharko litzateke. Azterketa horren helburua hasiera batean zen ikustea ikastetxeek ikasleak prestatzen al zituzten unibertsitatara joateko; hori gaingitua dago gaur egun, arazoa da denek ezin dutela nahi duten karrera ikasi notaren arabera, selekzio hori zerbaiten arabera egin behar da, eta oraingoz pentsatu den modurik onena azterketa hori da.



Selektibitatearen eta Baxoaren aurkako kartelak Donostiako Ibaetako campusean, 2007ko azterketetan.

J. AGIRRE: Nik ere esango nuke hobetu egin behar dela. Kanpo-probek aldaketa metodologikoa ekar dezakete. Ikusten ari gara gaur egun erabiltzen ditugun metodologiak pixka bat zaharkituak daudela, ikasleari protagonismo handiagoa eman behar zaiola, berak gidatu behar duela bere ikaskuntza... eta kanpo-proba hauek aprobetxatu beharko genituzke aldaketa metodologikoa sustatzeko. Horretarako, azterketa erdua bera modifikatu egin beharko da, aldaketak sartu. PISArekin ere berdin gertatzen da, kontu-

SELEKTIBITATEA

XX. mendearen bigarren zatian jaio zen Selektibitatea, aurretik zegoen errebalida ordezkatzuz, eta unibertsitaterako sarrera ordenatzea du helburu. Azterketara aurkezteko beharrezkoa da Batxiler titulua izatea eta Espainiako unibertsitate ikasketak egin ahal izateko proba gainditu behar da. Zehazki, batez bestekoa kalkulatzeko ikaslearen Batxilergoko espedienteak %60 balio du eta Selektibitateko notak, %40.

Bere historian hainbat aldaketa izan ditu probak. Iaztik, adibidez, bi zatitan banatzen da: fase orokorrean, ikasle guztiek ematen dituzten lau ikasgaiak eta bakoitzak egin duen Batxilergo motaren arabera bosgarren bat gainditu behar dituzte. Fase espezifiko deiturikoa borondatezkoa da, ikasleak unibertsitatean egin nahi dituen ikasketekin du zerikusia eta nota igotzeko balio du. Halaber, ikaslea deialdi batean baino gehiagotan aurkeztu ahal izango da fase orokorreko kalifikazioa edo fase espezifikoaren batekoa hobetzeko. Azken deialdian lortutako nota hartuko da kontuan, aurrekoa baino hobea bada.

DATUTAN:

Ikasgaiak: Gai orokorrak (Alemana; Euskara eta literatura; Filosofiaren historia; Frantsesa; Gaztelania eta literatura; Historia; Ingelesa; Italiara). Modalitateko gaiak (Analisi musikala II; Artearen historia; Biologia; Diseinua; Elektroteknia; Enpresaren ekonomia; Fisika; Geografia; Grekoa II; Gizarte zientziari aplikaturiko matematika II; Ikusentzunezko kultura; Industria-Teknologia II; Kimika; Latina II; Literatura unibertsala; Lurraren eta ingurumenaren zientziak; Marrazketa artistikoa II; Marrazketa teknikoa II; Matematika II; Musikaren eta dantzaren historia).

Noiz: Ekainaren 8, 9 eta 10 (ezohiko deialdia, uztailaren 6, 7 eta 8an).

Zenbat: Iaz, Hego Euskal Herrian 10.266 lagun aurkeztu ziren ohiko deialdian.

Gainditua: Iaz, Hego Euskal Herrian %96,9ak gainditu zuen proba ohiko deialdian.

ratzeko balio baitu agian ez garela hain ongi egingen ari, beraz, goazen metodologian aldaketak egitera.

M.L. JAUSSI: Ebaluazio-diagnostikoetan eta PISAn erabiltzen diren probak ez dira azterketa tradizionalak eta hori nabaritzen da ikastetxetan. Hasi dira pentsatzen zerbait aldatu behar dutela, ez bakarrik emaitzengatik, kompetentzia berriak neurtzen direlako baizik, eta horiek lantzeko beharra ikusi dute. Ikastetxeak oso tradizionalak badira, proba horietan ez dituzte emaitza onak lortzen.

J.F. LUKAS: PISAz eta ebaluazio-diagnostikoez ari garela, LHn eta DBHn lantzen diren zortzibederatzi kompetentzietatik zeintzuk dira PISAk eta ebaluazio-diagnostikoez kontuan hartzen dituztenak? Bietan, ia-ia errepikatu egiten dira: hizkuntza beti, matematika ere beti, eta gainontzekoak, egokitzen bada edo inoiz ez. Eta badira beste kompetentzia batzuk hizkuntza eta matematika bezain garrantzitsuak edo garrantzitsuekoak direnak. Finlandiak oso emaitza onak lortzen ditu PISAn, baina agian beste arlo batzuetan, PISAn kontuan hartzen ez direnetan, ez dira hain onak.



Josu Agirre

“Selektibitateak ez ditu neurtzen transbertsalagoak diren lau gaitasunak: ikasten ikasi, hiritartasuna eta elkarbizitza, ekintzailetasuna, eta konpetentzia teknologikoa edo IKT konpetentzia. Gerta liteke gradu titulua ateratzea ahozko konpetentziarik batere izan gabe”

M.L. JAUSI: Adibidez?

J.F. LUKAS: Adibidez, hainbat ikaslek bere buruaz beste egiten du...

M.L. JAUSI: Beste lekuetan ere halakoak gertatzen dira, ez du zerikusirik.

J.F. LUKAS: Esan nahi dudana da kontuan hartu beharreko gauza gehiago daudela eta adibidez ezinezkoa da guk atera nahi izatea Finlandiak PISAan ateratzen dituen emaitzak. Zenbat urte beharko diren horretarako ez dakit, baina bi urtetan ez da lortuko.

M.L. JAUSI: Beste irakaskuntza eredu bat dutelako.

J.F. LUKAS: Eta beste gizarte eredu bat.

M.L. JAUSI: Irakaskuntza eredua aldatuko bagenu, gauza asko aldatuko genituzke.

J.F. LUKAS: Baina beraien emaitzetara ez ginateke iritsiko urte askotan. Gurasoen maila sozio-ekonomiko-kulturala aldaera garrantzitsua da ikaslearen errendimendua azaltzeko eta Finlandiako DBHko ikasleen gurasoak hartzen badituzu, bigarren mailako ikasketak dituzte portzentaje altuan; aldiz, hemen portzentajea askoz txikiagoa da.

M.L. JAUSI: Kontuan hartu beharreko beste faktore bat dago: han, lehenengo unetik gurasoa inplikaturik dago curriculumaren diseinuan, ikasketetan dagoen dinamikak ebaluatzen, eta abar. Ikusi da parte-hartze hori pauso garrantzitsua dela ikasleek emaitza onak lortzeko, gurasoen maila kulturalaz gain. Nahiz eta gurasoen maila handia ez izan, parte hartzen dutenean askoz emaitza hobekiak lortzen dira, eta hori Finlandian sistematikoki dago antolatua, ez hemen bezala.

Selektibitateak gehiago jo beharko luke PISA motako eredurantz?

J.F. LUKAS: Neurtu nahi denaren arabera, bai. Selektibitatean oraindik zenbait azterketa oso lotuta daude edukiekin, eta PISA gehiago lotzen da konpetentziekin.

M.L. JAUSI: Bai, eta konpetentziak neurtzea da garrantzitsua.

J. AGIRRE: Lehen aipaturiko konpetentzia transbertsal horiek neurtze aldera zerbait egin beharko genuke, ariketa zabalagoak planteatzera jo.

Eta aldaketa horiek, aipatu dituzuen egin beharreko hobekuntzak, noren ardura dira? Zein dago horren guztiaren atzean eta ba al dago aldatzeko intentziorik?

J. AGIRRE: Duela gutxira arte, unibertsitatearen ardura zen; gaur egun, unibertsitatearen eta Hezkuntza Sailaren ardura banaketa dago. Nik uste horiek biek sustatu beharko luketela azterketa ereduaren aldaketa, baina beti ere ikastetxeekin elkarlanean. Elkarlan hori oso-oso garrantzitsua da eta egia da EHUK harreman dezente daukala ikastetxeekin, hala izan behar duelako. Eta hala ere, azken urteotan beti gertatu da okerren bat, gauza bat adostu eta gero beste zerbait galdetu edo horrelakoren bat.

BAXOA

1808an sortu zen Baxoa eta Europako azterketa zaharrenetakoa da. Napoleon Bonapartek bultzatuta jaio zen, Frantzian ezagutza eta kultura zabaltzeko asmoz, eta Frantziako Iraultzaren balioak aintzat hartuz sortu zen: eskola errepublikanoa, laikoa, publikoa eta derrigorrezkoa. Batxilergoa amaitzerakoan, lortutako ikasketa maila egiaztatzen duen proba da Baxoa, eginiko ikasketei balio ofiziala ematen diena, eta hortaz, unibertsitate-ra joan ahal izateko Baccalauréat diploma lortzea beharrezkoa dute Frantziako Estatu-ko ikasleek. Selektibitateetik ezberdintzen duen gauzetako bat da Frantziako Estatuan Baxoko azken nota baino ez dela hartzen kontuan; Espainiako Estatuan aldiz, Batxilergoko notaren eta Selektibitatekoaren arteko batez bestekoa egiten da.

Baxoko azterketak bi etapatan egin ohi dira: lizeoko bigarren urte amaieran zenbait ikasgai egiten dituzte, eta gainerakoak Terminala bukatzean. Hiru Baxo mota daude, lizeoan jarraitutako hiru bideen arabera: Baxo orokorra, teknologikoa eta profesionala.

20ko eskalan puntuatzen da azterketa eta 8 baino gutxiago ateratzen duenak hurrengo urtean errepikatu beharko du proba. 8-10 arteko nota lortzen duenak errepexarako aukera dauka: idatziz gaingitu dituen bi gai hautatu eta ahoz egin.

M.L. JAUSSI: Sortzen den arazoa da konpetentziak neurtzeko ez dagoela eredurik. Hiritartasunaren proba egitea planteatu zenean, adibidez, asko kostatu zitzairen eredu homologatuak eta esperimentatuak lortzea. Zalantzak ditut sortu den probak benetan neurtzen ote duen hiritartasuna,



Baxoa euskaraz egitea aldarrikatu zuten joan den apirilean Baionako Bernat Etxepare lizeoko ikasleek.

IKASLEABERTZALEAK.ORG

DATUTAN:

Ikasgaiak: Baxo orokorraren baitan daude Ekonomiko eta soziala, Literarioa, eta Zientifikoa; teknologikoaren baitan, Kudeaketaren zientziak eta teknologiak, Zientzia eta teknologia industrialak, Laborategiko zientzia eta teknologiak, Osasun eta gizarte zientzia eta teknologiak, Bizitza eta agronomiaren zientzia eta teknologiak, Musika eta dantzaren teknikak, eta Ostalaritza; eta Baxo profesionalaren baitan, 80 espezialitate inguru daude (Aeronautika, Okina, Karrozeria, Modaren lanbideak, Argazkilaritza, Idazkaritza...)

Noiz: Ekainak 16, 17, 20, 21, 22.

Zenbat: Iaz, Pirinio Atlantikoen departamenduan, 3.305 lagun aurkeztu ziren Baxo orokorrera, 1.519 teknologikora, eta 1.108 profesionalera.

Gaingitua: Iaz, gure departamenduan %91,4ak gaingitu zuen orokorra, %87,9ak teknologikoa eta %90,4ak profesionala.

sun, baina suposatzen dut beraiek ere zalantza hori izango dutela. Beti gauza berdinak neurtzen dira esperientzia hori daukagulako...

J.F. LUKAS: Bai, konpetentzia batzuk neurtu daitezkeen ere zalantzarria da, ezta?



J. F. Lukas

“Azterketa batek baldintzatu behar badu prozesua, kontuz ibili beharko ginateke. Soluzio bat izan daiteke azterketa horiek hobetzea. Azterketek zenbat eta konpetentzia gehiago eta hobeto neurtu, ikas-irakaskuntza prozesua ere aberatsagoa izango da”

M.L. JAUSSI: Bai, gainera horrela modu masiboan...

J.F. LUKAS: Edozein kasutan, azterketak aldatzen badira ere, eta jo dezagun azterketa askoz ere hobeak egiten ditugula, konpetentziekin lotu-

ta eta osatuta, lehenengo puntuan aipaturiko arazo soziologikoa beti egongo da: batzuk geldituko dira egin nahi duten karrera egin gabe. Lortu behar duguna da azterketa hori ahalik eta justuena izatea, baina justua zeren arabera? Ikasleak lortu dituen konpetentzien arabera? Tira, ba egin dezagun hori, baina jende guztia ez da gustura geldituko, ebaluazio hau ez delako jendea gustura gelditzeko, selekzionatzeko baizik.

M.L. JAUSSI: Justiziari tiraka, batez ere eduki akademikoak neurtzen dira Selektibitatean eta hori inguru sozio-ekonomiko eta kultural batzuetan umea jaiotzen denetik lantzen da, baina beste inguru batzuetan ez. Hortaz, beste inguru horietako ikasleek zaila daukate Batxilergora heltzea, eta heltzen direnek ere, zaila daukate nota altuak lortzea. Ezberdintasunak sortzen ditu sistemak, eduki akademikoak neurtzen dituen unetik. Karrera bat edo bestea egiteko irizpide egokiena edukiak diren zalantzan jartzeaz gain, zalantzan jarri behar da baita ere justua al den neurria hori izatea.

Entzuten dizuedanagatik, argi dagoena da ebaluazioak asko baldintzatzen duela ikasketa prozesua bera, azterketa motara egokitzen da irakasten dena.

J.F. LUKAS: Unibertsitatean gertatu da orain arte: irakasleak lehenengo egunean ikasgai horren ebaluazioa nolakoa izango den azaltzen duenean, ikasleak horretara egokitzen dira eta ikasgaia horren arabera lantzen dute. Orain Boloniarekin suposatzen da azterketak bere garrantzia izan dezakeela, baina beste ebaluazio mota bat egongo dela eta beraz beste mota bateko ikas-irakaskuntza prozesuak sortuko direla. Dena den, Selektibitatearen kasuan zerbait alda dezakegu, baina beste zenbait gauza nik uste ezin direla aldatu.

J. AGIRRE: Proba bakarra izanda, emaitzei begirako proba izan beharra dauka nahitaez. Egun



pare batetan, ariketa ezberdinetan lortu dituzun emaitzak. Kito. Ebaluazioaren kontzeptua hori baino askoz zabalagoa da. Ikastetxeetan ebaluazioa erabiltzen dugu ajusteari egiteko, prozesua bera neurtzeko (ea ongi ari garen edo ez, zerbait aldatu behar al dugun)... Hautaprobea ez, hautaprobea da bukaerako ariketa bat, unibertsitateko sarbide den aldetik emaitzak neurtzeko dituen zerbait: ez dago eragiteko beste modurik, baina bai egin dezakeguna da proba hori ongi diseinatu eta egun daukagunarekin alderatuta modu zabalagoan planteatu.

Nolako ikasleak nahi ditu unibertsitateak? Zer da "ikasle on" bat?

J. AGIRRE: Orain dela bi urtera arte, espediente onena zuena. Hori zen unibertsitateak nahi zuen ikaslea. Orduetik hona, hautaprobea berriarekin, ajuste txiki bat sartu diote horri: espediente onena dutenak, baina jakintza arlo zehatzetan. Hori da proba espezifikoaren helburua: Medikuntza graduari begiratu dute ikasleak espediente ona izatea, baina batez ere ona izatea Kimikan eta Biologian. Ajuste interesgarria eta nahiko justua da.

Eta enpresa munduak zer eskatzen du? Ez du eskatzen sekulako espezializazioa duen inor, baizik titulua duena, oinarrizko gaitasun onak dituen, eta geroz eta gehiago, pertsona ona dena, taldean lan egiteko gai, harremanetarako... Hori da inguruak demandatzen duena eta hori detektatua daukagu, baina nola neurtzen da hori?

J.F. LUKAS: Bi alderdi daude hor. Batetik, gutxiengo konpetentzia batzuk beharrezkoak dira, edukiak lotuak: irakurketa-idazketarako gaitasuna, matematika zenbait karreretan, hizkuntza... Baina gero bigarren atal bat dago. Nahikoa dira jakintza arlo horietan gutxiengo konpetentziak izatea? Ez, unibertsitatean esaterako landuko delako taldean lan egiten jakitea, eta hori txikitan, LHn... lantzen da, baina



DBHn eta Batxilergoan geroz eta gutxiago, eta unibertsitatean etortzen direnean ikasleek hori oraindik ikasteko daukate. Enpresetan eta edozein lekutan jakin beharreko zerbait da, ezinezkoa da pentsatzea gradu bat bukatu ondoren bakarrik egingo duzula lan, beti beste batzuekin arituko zara. Horrez gain, pertsona integrala, hiritarra izan behar duzu; medikua ez da bakarrik ebakuntzak egiteko gai den pertsona, enpatia bat ere beharrezkoa da eta gauza horiei geroz eta garrantzi handiagoa ematen zaie. Gai transbertsalak ere hor daude, unibertsitatean garrantzitsuak direnak: jendaurrean hitz egiteko gaitasuna izatea, besteak beste.

J. AGIRRE: Azken finean, ebaluazioa planteatzeko moduak izugarritzko eragina dauka metodologian. Adibide bat jartzearen: lantzen da ahozko-tasuna Batxilergoan? Ba zenbaitetan bai, baina ez hautaprobak hala eskatzen digulako, EGA azter-



Maria Luisa Jaussi

“Unibertsitatea galtzen ari da arlo batzuetan gaitasun handia izan dezaketen ikasleak baina Batxilergoa gainditu ezin izan dutenak, Selektibitateak baldintzatuta Batxilergoan edukiek dutelako pisua. Ikasle horiek guztiak galtzen ari gara gure sisteman”

keta prestatu behar delako baizik. Beraz, ebaluazioek aldaketa garrantzitsuak ekar ditzakete metodologietan, baina horretarako modu egokierik planteatu behar ditugu ebaluazioak.

M.L. JAUSSI: Bai, eta aipatu da hautaprobak neurtzen duela idazten eta irakurtzen ondo al dakiten, baina Batxilergoan dauden guztiek ziurtatuta daukate hori eta gainera nota altuena eskatzen duen karreraren agian hori ez da hain justu beharrezkoena, nota altua ez delako gaitasunen araberakoa, demandaren araberakoa baizik. Unibertsitatea galtzen ari da arlo batzuetan gaitasun handia izan dezaketen ikasleak baina Batxilergoa gainditu ezin izan dutenak, Selektibitateak baldintzatuta Batxilergoan edukiek dutelako pisua. Ikasle horiek guztiak galtzen ari gara gure sisteman.

J. AGIRRE: Nik beste pertzepzio bat daukat. Gaur egun, gure bailaran esaterako DBH 4n dauden ikasleak %85-90ak egiten du Batxilergoa. Eta horien gainditze tasa oso altua da, %91 ingurukoa. Bestela, bizpahiru urtetan ikasle ia guztiek gainditzen dute, eta behin Batxilergo titulua izanda, hautapropa gainditzea oso erraza da. Zailagoa da Batxilergoa gainditzea, hautapropa gainditzea baino. Iaz, Gipuzkoan aurkeztu zirenetatik %97ak gainditu zuen hautapropa. Unibertsitate-rako sarrera, beraz, ia-ia unibertsala da une honetan. Beste gauza bat da zuk nahi duzun gradua egingo duzun edo ez.



M.L. JAUSSI: Baina leku guztietan ez da horrela...

J. AGIRRE: DBHko titulaziorik gabe %12-14 geratzen da EAEn, Espainian %30 inguru.

M.L. JAUSSI: %15a kanpoan geratzea asko da niretzat, %15 horretan gainera beti berdina daudelako; faktore sozio-ekonomiko eta kulturalak daude hor barruan.

J.F. LUKAS: Bai, lehen nioen, besteak beste faktore sozio-ekonomiko eta kulturalak desberdintasuna markatzen dute Finlandiaren eta gure artean.

M.L. JAUSSI: Gure sistema antolatuta dagoen moduan, garrantzitsuak dira faktore sozio-ekonomiko eta kulturalak, baina eredu aldatuko bagenu, ezberdintasun horiek gaindituko genituzke.

J. AGIRRE: Zaila ikusten dut horri buelta ematea. Efektu sozio-ekonomikoa oso garrantzitsua da eta azken urteotan gehitu behar dira atzerrikotarrak. Horiek osatzen dute gaur egun titulaziorik gabe geratzen direnen nukleoa.

M.L. JAUSSI: Hori ez da horrela berez, sistemen baitako efektua baizik. Eztabaidatu dezakegu ebaluazioa hobetzearen inguruan, konpetentzia gehiago sartzeaz eta abar, baina niretzat oso inportantea da kanpo-ebaluazioak egitea

ikastetxeei beraiei, ikusteko zein ikastetxetako planteamenduak diren arrakastatsuenak eta eredu horiek errepikatzeko, zeren maila sozio-ekonomiko baxua duten hainbat ikastetxe gainditzen ari dira baldintza hori eta emaitza onak lortzen ari dira. Ikastetxe batzuek besteengandik ikastea interesgarria litzateke, baina zoritxarrez konfidentziala da azterketa horien emaitza.

J. AGIRRE: Ados nago. Ebaluazioari buruz orokorrean hitz eginda, alde batetik ditugu une jakin batean egindako azterketak (hautapropa, PISA, ebaluazio-diagnostikoak...) eta horiek informazio jakin bat ematen dute, momentu bateko argazki txiki bat egiten da. Baina aldatu nahi badugu eta ikasleei aukera hobeak eman nahi badizkiegu, prozesuak neurtu behar ditugu, ez emaitzak bakarrik. Eta horrek batez ere zerikusia dauka barne-ebaluazioarekin, ikastetxeen barne-ebaluazioarekin, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ematen diren elementu nagusienak ebaluatzeke. Izugarri garrantzitsua iruditzen zait baita ere irakasleen ebaluazioaz edo gutxienez auto-ebaluazioaz hitz egitea. Adostu dugu kontzeptu bat: irakaskuntza-ikaskuntza prozesua. Prozesu horretan bi elementu parte-hartzaile daude: garrantzitsuena da ikaskuntza egiten duen agentea, ikaslea, baina irakaslea-dozentea ere elementu garrantzitsua da. Arrakastarik handiena duten sistemetan, Finlandian esaterako, prestatuenak eta hoberenak irakasle bukatzen dute. Gurean, ikasleak etengabe ari gara ebaluatzen, eta irakaslearen eta ikastetxearen ebaluazioaz ez da inor arduratzeko. Prozesu horretan ispiluko efektu bat dago: ikasleak ikasten duen horretan faktore askok eragiten dute, faktore sozio-ekonomikoa inportantea da, baina ikastetxeak ere zeresan handia dauka, dozentek, ikastetxearen sistemak, elkar eraginak, inguruak, motibazioak... Eta ispiluen beste aldean dago irakaslearen-dozentearen zeregina, ikastetxearena, hori ez da ebaluatzen, eta nekez emango da ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan hobetze handi bat, ez badira bi elementuak ondo neurtzen. Orain hasi gara auto-ebaluazio sistemak ezartzen ikastetxeetan, baina oso modu xumean.

“ Josu Agirre

“Enpresek ez dute eskatzen sekulako espezializazioa duen inor, baizik titulua duena, oinarrizko gaitasun onak dituenak, eta geroz eta gehiago, pertsona ona dena, taldean lan egiteko gai, harremanetarako... Hori da inguruak demandatzen duena, baina nola neurtzen da hori?”

M.L. JAUSSI: Esan duzun moduan diagnostiko-ebaluazioa egun batean egiten da eta argazki bat da, baina hori ere kontrastatu daiteke ikastetxeko emaitzekin eta normalean orain arte ez da desoreka handirik egon emaitzetan. Ezagutzen ditudan ikastetxeetan nahiko parekatuta ikusten dute argazki horretako emaitza eta ikastetxekoa. Prozesuak inportanteak dira, baina ezin dira emaitzetatik banandu: prozesuak inoiz ez dira onak izango, emaitzak txarrak badira; lotuta daude. Nire ustez asko azpimarratu da prozesua, emaitzak ahaztuta, eta niretzat garrantzitsuena emaitza da, horretarako gaude eta ikasle guztiek ikasi egin behar dute.

Eta ikasleen eta irakasleen garrantzia nabarmendu duzu, Josu, nik gaineratuko nuke baita ere inguruaren eta familien parte-hartzea. Finlandian hori guztia kontuan hartzen dute eta nik orain arte ikusi dudana da oreka, berdintasuna eta efikazia lortzen duten ikastetxe eta sistemek aintzat hartzen dutela hirugarren faktore hori ere.

J.F. LUKAS: Ebaluazio ezberdinak aipatu dira, helburu ezberdinak dituztenak. Ebaluazio-diagnostikoari buruz hitz egiten badugu, egia da argazki edo emaitza zehatz bat ematen duela, baina teoriarik behintzat asmoa da argazki hori urtero ateratzea eta bilakaera ikusteko aukera izatea. Urte batean ikastetxe bateko gela batek atera-



J. F. Lukas

“Boloniarekin ikasleek beste era batera egingo dute lan, jada ez dira klase magistralak izango, proiektuak baizik, talde lanak... Eta hori horrela bada, suposatzen da unibertsitateak eskatuko dituen ikasleek ere horrelakoak izan behar dutela”

tako emaitzarekin ezin da ondorio handirik atera, baina hainbat urtetan ikusten badugu konpetentzia batean emaitza eskasak errepikatzen direla, horrek esan nahi du zerbait ez garela ari ondo egiten, ebaluazio-diagnostikoak neurtzen dituen konpetentzien arabera behintzat. Eta ebaluazio-diagnostikoaren asmoa da hobekuntzarako ebaluazio bat, suposatzen delako diagnostiko horrekin gero ikastetxeak bere barne-ebaluazioa egin behar duela, hobetzen joateko. Nik nire zalantzak ditut barne-ebaluazio hori egiten ari ote den, eta egiten ari baldin bada ere, alderdi batzuk erraza-goak dira ebaluatzeko, baina beste batzuk (irakasleak ebaluatzea, adibidez) konplexuagoak dira.

Lehen ebaluazioaren asmoa zen feedback edo atzera-elikadura motako informazioa ematea, baina gaur egun hitz egiten da forward edo aurrera-elikaduraz. Ebaluatzen dugu (ikastetxeak edo ikasleak izan) aurrera jotzeko; informazio hori erabiliko dugu gure egoera hobetzeko. Albo batera utzita, hala ere, Selektibitatea, bere asmoa ez delako hori.

Bestalde, 60ko hamarkadan Colemanek eta beste batzuek egin zituzten ikerketetan argi ikusi zuten gurasoen maila sozio-ekonomiko-kulturalak ikaslearen errendimendua baldintzatzeko duela. Hori desgrazia handia izan zen hasiera batean, “ikasle txarrak hartzen baditugu, gureak egin du”, baina gero konturatu ziren, zuk diozun moduan, Maria Luisa, maila sozio-ekonomiko-kultural berdineko ikasleek emaitza

ezberdinak lortzen zituztela ikastetxe batean edo bestean. Beraz, eskola efektua badago. Zer gertatzen da eskola barnean? Batzuetan kaxa beltza dirudi; zer gertatzen da eskolan eragina izan dezakeena emaitzak hobetzeko? Metodologiak zerikusia duela esango nuke eta beste faktore ugari aipatu dituzue. Nik pare bat gehituko nituzke: batetik, zuzendaritza taldea inportantea da, ikastetxeak ondo funtzionatzeko, eta bestetik, igurikapenak edo espektatibak. Guk pentsatzen badugu gure ikasleek ezin dutela asko aurreratu, ez dute aurreratuko, eta pentsatzen badugu auktora badutela hobetzeko, hobetuko dute.

Ikasleak etengabe ebaluatzen ditugula aipatu du Agirrek. Non kokatu behar da prozesuaren eta ebaluazioaren arteko oreka?

J.F. LUKAS: Lehen, unibertsitatean, baita aurreko mailetan ere, inportanteena irakaslea zen; irakatsi egiten zuen irakasleak, eta hortik aurrera ikasleak neurtu edo ebaluatzen ziren, egindako lanaren eta lortutako emaitzaren arabera. Emaitza hori ikaslearen arazoa zen, ez irakaslearena, baina orain hori aldatzen ari da: inportanteena ez da irakasleak irakasten duena, ikasleak ikasten duena baizik. Bera da inportantea, eta ikasteko ez da nahikoa irakaslearen oharrak hartzea, berak egin behar du lana. Boterea galtzen du irakasleak, orientatzaile edo gidari lanak egin behar ditu, eta etengabe ikuskatu behar du ikasleek egiten duten lana, prozesua. Suposatzen baita prozesua hobetzen bada, hobe izango dela emaitza.

M.L. JAUSSI: Esan duzunarekin lotuta, Colemanen eta ondorengo beste hainbat ikerketekin geratu den ondorioa da maila sozio-ekonomikoaren arabekoak direla emaitzak eta prozesu onak planteatuta emaitza txarrak lortzen badira, ikaslearen arazoa dela, ez ikastetxearena, espektatibarik ez da jartzen. Gero zuk esandakoa ikusi da, hori ez dela hala, baina nik uste oraindik geratu zaigula beste ideien eragina, eta emaitzak ahazten baditugu, prozesuak ez dira onak izango. Eta



Goiko irudian, Ibaetako campusean, Selektibitatea prestatzen. Lukas beldur da Boloniak ez ote duen ekarriko unibertsitatea pribatizatzea edo plazak murriztea: "Horrelako sistemek hori errazten dute: 1.000 plaza daude eta 1.001.a baldin bazara, ez zara unibertsitatean sartuko".

ikusi da baita ere, gurasoen formakuntza baino garrantzitsuagoa dela gurasoek formakuntzan parte hartzea, oso eraginkorra delako emaitzetan.

J. AGIRRE: Gure hezkuntza sisteman irakasle-riaren zati handi bat gauden adinean gaude, 40 urtetik gora, denak bateratsu sartuak, eta gure irakasteko metodoa oso tradizionala izan da, besterik ez dugulako ezagutu. Formazioarekin izugarritzko arazoa daukagu eta teorikoki agian badakigu ezagutzak nola sortzen diren, norberak sortu behar dituela, ikasleak, baina gero hori praktikara eramateko zailtasunak ditugu, ez gaude formatuak, eta hor erronka handia daukagu. Ikaskuntza kooperatiboa eta horrelako kontzeptuak bultzatzen ari dira, baina kostatzen zaigu aldatzea. Hala ere, belaunaldi aldaketa ikaragarria emango da hezkuntzan datozen hamar urteotan, irakasle gehienak aldatu egingo gara,

eta momentua aprobetxatu behar da ikuspegia aldatzeko.

M.L. JAUSSI: Irakasleei aldaketetara egokitzea kostatzen zaiela egia da, eta egunero ikusten dugu Ikas-komunitate proiektuan, talde dinamikean. Taldeak antolatzen ditugu eta talde dinamika gidatzen pertsona bat jartzen dugu (unibertsitateko ikasle bat, gurasoa...); dinamizatzailearen papera irakasleak egiten duenean, onartu ohi dute asko kostatzen zaiela rol hori hartzea, klaserik ez ematea.

Boloniak nola eragin du eta eragingo du ebaluazio sisteman?

J.F. LUKAS: Unibertsitatera sartu aurreko ebaluazioetan ez dakit nola eragingo duen, baina garbi



M. L. Jaussi

“Prozesuak inportanteak dira, baina ezin dira emaitzetatik banandu: prozesuak inoiz ez dira onak izango, emaitzak txarrak badira. Asko azpimarratu da prozesua, emaitzak ahaztuta, eta ni-retzat garrantzitsuena emaitza da, horretarako gaude eta ikasle guztiek ikasi egin behar dute”

dago unibertsitatean eragingo duela, benetako aldaketa egiten bada, ez soilik arautegietan. Ikasleek beste era batera egingo dute lan, jada ez dira klase magistralak izango, proiektuak baizik, talde lanak... Eta hori horrela bada, suposatzen da unibertsitateak eskatuko dituen ikasleak ere horrelakoak izan behar dutela, aktiboak. Gaur egun oraindik ikasleak atzeko ilaran esertzen dira unibertsitatean eta ez daude dinamika egitera ohituta. Ezta auto-ebaluaziora ere, eta auto-ebaluazioa oso garrantzitsua da, ez bakarrik unibertsitatean, baizik Lehen Hezkuntzatik hasita, ikasleen nahiz irakasleen kasuan, zeren ez banaiz gai jakiteko non nagoen, zer dakidan eta norantz joan behar dudana...

J. AGIRRE: Nik uste dut optimista izan behar dugula eta Bolonia eta hezkuntza sistema oro har hartzen ari den neurriekin bide egokian jarrita gaudela. Denbora behar dugu eta gauzak transformatzeko hastea ikastetxetan, baina nahia badago, ez dakigu oso ondo nola egin aldaketa, baina nahia badago. Bigarren Hezkuntzan ere entzuten da dagoeneko, irakasleak protagonismoa hartu beharrean hori banatu egin behar dela, ikasleak hartu dezan, bakarka eta taldean. Baina hasiberriak gara, Bolonia, PISA... bost urteko kontuak dira, pazientziarekin hartu behar dugu. Esate baterako, Hezkuntza Sailak atera duen azken curriculumak izan da Batxilergoko hautazkoena, proiektua lan egiteko. Eskuratu nahi izan da Katalunian zegoen gauza interesgarri bat, Batxilergo amaierako proiektua,

jakintza gai guztietatik lortutako gaitasunak biltzen dituen proiektua. Beste gauza bat da noiz iritsiko garen gela barruan lan egitera ikuspegi curricular horrekin, baina iritsiko gara.

Bukatzeke, nahiz eta atzerriko beste eredu batzuk aipatu dituzuen dagoeneko, Batxilergotik unibertsitaterako jauzi horretan zein irizpide hartzen dituzte kontuan nazioartean?

J. AGIRRE: Nik ezagutzen dudana da Europan egiten dena: Italian, Frantzia, Alemanian, Erresuma Batuan errebalida atzeko bat egiten dute. Eta helburua oso garbia da: sistema homologatzeko bidea da, eta behin homologatu ondoren, emaitza onenak dituztenak unibertsitatera edo goi mailako lanbide heziketara bideratzen ditu. Inpresioa da, gainera, gizarteak nahiko ongi ikusten duela, ez duela uste hori aldatu beharko litzatekeenik. Are gehiago, askoren inpresioa da errebalida horrek ebaluatzeko izan behar duen modua nahiko klasikoa izan behar duela, akademizista: emaitza onenak ematen dituen aurrera eta kito. Frantzia adibidez eztabaida egon da ea errebalida aldatu behar zen edo ez, eta azkenean erabaki da ezetz, oso bide justua dela, ez delako derrigorrezko hezkuntza; eta derrigorrezko hezkuntzak denek erantzun behar die, baina gero jada onenek egin behar dute aurrera.

J.F. LUKAS: Hemen sistema mistoa dugu nolabait. Ez dago errebalida, baina dago Selektibitatea eta aurreko bi urteetan egindako lana kontuan hartzen duen sistema. Boloniarekin beldurra ematen didana da, metodologiari dagokionez ados nagoen arren, gero atzetik ekartzen badu unibertsitatea privatizatzea edo plazak murriztea... oso arriskutsua da. Horrelako sistemek hori errazten dute: 1.000 plaza daude eta 1.001.a baldin bazara, ez zara unibertsitatean sartuko. Hemen oraingoz denek dute unibertsitatera sartzeko aukera Selektibitatea gainditu ondoren (eta Selektibitatea %95ak gainditzen du), eta beldurra ematen dit zer gerta daitekeen Boloniarekin. Hala ere, batzuek kontrakoa ere badiote: zertarako hainbeste leku unibertsitatean,

gero gizarteak ezin baditu denak hartu lanerako? Kontua da bi gauza desberdin direla, unibertsitateak formakuntza ematen dizulako, ez soilik lanbide bat lortzeko ibilbidea. Horrela izango balitz, karrera batzuk desagertu egin beharko lirateke.

M.L. JAUSSI: Lehenago ere komentatu dudan moduan, alde batetik ondo dago proba bat egitea ikastetxe guztiak homologatzeko, baina beste aldetik sistemak ikasleak galtzen ditu, nota nahikoa atera ez dutenak eta bestelako gaitasunak dituztenak. Horregatik, beste bide batzuk gehitu behar dira hori ez gertatzeko.

J. AGIRRE: Lukas, esan duzunari erantsi nahi diot plazak mugatzeak-eta denoi beldurra ematen digula, bai, baina era berean gure gizarteak egin beharreko hausnarketa dela ea jasangarria den ez dakit zenbat unibertsitate eta fakultate izatea, ikasle bakoitzak nahi duen gradua egiteko. Seguru aski ez, eta hori erregulatu egin beharko da. Horri lotuta beste kontu bat: duela hiru urte, gure bailarako enpresarik punteroenek, CAFek tartean, arazoak zituzten profesionalak kontratatatzeko. Horrekin guztiarekin gogoeta egin beharko dugu ikasketak

antolatzeko, bestela ez dakit nora goazen. Eta hirugarren elementu bat: profesional gisa oso kezkatuta gaude zenbait gradu (esate baterako garai bateko zientzia klasikoak ziren graduak: matematika, fisika, kimika...) ez dituelako ia inork egiten; hemendik hamar urtera zer pasako zaigu, Holandan bezala ez dugula profesionalik izango espezialitate horietarako?

J.F. LUKAS: Espezialitate horietan gertatzen dena da exigentzia maila oso-oso altua dela lehenengo mailan eta akademikoki ez badira maila altuko ikasleak, porrot egiten dute lehenengo urtean. Eta horri lotuta beste gai bat: alde batetik zortea dugu hemen unibertsitate sartzeko aukera denek dugulako, baina bestetik eskubide hori ez dugu ondo erabiltzen, eta hor neurriak hartu beharko lirateke, ikasle baten matrikula urtero milaka euro kostatzen baita. Batzuek matrikula egiten dute, urtebete pasatzen dute kolpe zorrik jo gabe eta gero berriro matrikulatzen dira 600-1.000 euro ordaindu dituztelako, baina horrekin ez da %10a ere ordaintzen! Pertsona helduak gara, ez da derri-gorrezko hezkuntza, eta jakin behar dugu aukera hori aprobetxatu egin behar dela. ■

Nafarroako Unibertsitate Publikoan, 2009ko azterketa egiten.





Ramón Flecha

Bartzelonako Unibertsitateko Soziologia irakaslea

Lanbide eta giza bikaintasun zientifikorako hautatze irizpideak

Munduko unibertsitate onenek ederki dakite bikaintasunean trebatzeko ikasgeletan oso bestelako pertsonak bildu behar direla, hori lortzea ezinezkoa baiditzateke bigarren mailako hezkuntzaren kalifikazioen edo azterketa jakin baten notaren arabera hautatze irizpideetan oinarrituko balira.

Egungo giza taldeak, eta are gehiago etorkizunekoak, geroz eta anitzagoak dira. Enpresek jatorri, etnia, gizarte klase, familia mota, aukera sexual, erlijio eta ideologia anitzeko langileak izango dituzte. Talde horietan ondo bizitzeko eta lan egiteko, baita horiek zuzentzeko ere, aniztasun hori bera duten taldeetan eta kolektiboetan jasotako prestakuntza behar da.

2003an, Harvardeko presidenteak zera esan zuen: “Arrazari dagokionez anitza den ikasgelak hezkuntza prozesua hobetzen du, ikasleek, eskoletan nahiz harreman informaletan, askotariko esperientziak eta ikuspuntuak jasotzen dituztelako. (...) Gure instituzioek zeregin berezia dute liderren hurrengo belaunaldiaren prestakuntzan, eta, aniztasun handiko ikastaldeak eratuta, gure ikasleak geroz eta kulturانيتzagoa den gizartera-

ko egoki prestatuta egongo direla ziurtatzen laguntzen dugu; halaber, gure onarpen politikek gizartearen beharrei erantzuten dietela eta liderren hurrengo belaunaldia talde anitz eta lehiakorretik atera dela ziurtatzen dugu”.

Hainbat unibertsitatetan, esaterako Harvarden eta Wisconsinen, gizarte klase eta talde kultural nahiz etniko ahulenetako ikasleak biltzeko ekin-tza programa zehatzak dituzte. Programa horiek dagoeneko martxan daude, onartze prozesuan. Adibidez, master eta doktorego programetan, hautagaiek “statement of purpose” edo “diversity statement” delakoa idatzi behar dute, azalduz beren aniztasunak nola aberastuko duen hezkuntza komunitate osoa, ikaskideak zein irakasleak. “Statement” hori ikasle izango direnak hautatzeko ebaluatzen den materialaren parte da, eskola dosierrarekin, argitalpenekin, lan esperientziarekin, ikerketa esperientziarekin eta abarrekin batera. Ildo horretan, POSSE Foundation (<http://www.possefoundation.org/>) erakundeak bazter auzoetan gazteak bilatzen ditu eta unibertsitate onenetan titulua lortzeko behar dituzten laguntzak ematen dizkie. POSSEn badakite, testuinguru kaltetuenetan gazteek maiz ez dutela unibertsitatera bakarrik joan nahi, “koadrilarekin” bai, ordea, eta horregatik progra-


mak talde osoa biltzen du. Estrategia horrek arrakasta izan du: gradua lortzen duten gazteen portzentajea oso handia da eta, ondoren, beren karrera profesional arrakastatsuak dituzte.

Harvarden bazter auzoetara joan eta etorkizuneko munduko liderrak izango diren ikasleak aukeratzeaz arduratzen diren bulegoak dituzte. Hala, Harvardek testuinguru horietako pertsonak bazterkeriatik barne-hartzera igaro daitezen laguntzen du. Wisconsin-Madisonen POSSE (<http://posseprogram.wisc.edu>) eta beste programa batzuk inplementatzen dituzte, hala nola PEOPLE Program delakoa (<http://www.peopleprogram.wisc.edu/>). Azken programa horren bidez, maila sozioekonomiko baxuko, gutxiengo kultural eta etnikoetako familiak dauden auzoetara joaten dira, eta bertako ikasleen jarraipena egiten dute, Wisconsinen unibertsitatean sar daitezen ahalik eta hoberen prestatzeko. Unibertsitatean sartu eta gero, ikasle horientzat neurri bereziak hartzen dira, karrera akademiko osoan arrakasta izango dutela bermatzeko. Neurri horietako batzuk ikasturtea hasi baino lehen ematen diren gai instrumentalei buruzko udako ikastaro trinkoak dira. Hala, ikasle horiek prestakuntza hoberekin sartzten dira eta unibertsitateko bidea hasi orduko arrakasta izateko aukera gehiago dute.

“

Adibidez, master eta doktorego programetan, hautagaiek azaldu behar dute beren aniztasunak nola aberastuko duen hezkuntza komunitate osoa. Hori ikasle izango direnak hautatzeko ebaluatzen den materialaren parte da, eskola dozierrarekin, argitalpenekin, lan esperientziarekin, ikerketa esperientziarekin eta abarrekin batera”

Gure unibertsitateen kalitatea hobetzeko selektibitatean edo ikasketen amaiera azterketan nota onenak lortu dituzten ikasleak hautatu behar direla dioen ideia unibertsitateen maila zientifikoa, profesionala eta giza maila hobetzeko oztopoetako bat da. Aurreiritzi horrek indar handia du, ikasleak biltzeko modu horren atzean hautaketa soziala dagoelako; bestela esanda, eskaintza unibertsitarioak sozialki ahulenei mesede egingo ez diela ziurtatzen da. Baina eragozpen horiek gure unibertsitateei eta gizarte osoari kalte egiten diete, baita klase pribilegiadunei ere, egoera horretan horiek ere ezin dutelako egungo gizarteak eskatzen duen bikaintasun prestakuntza lortu. ■



AEBetako Harvard unibertsitatean, ikasleak eskolak hartzen.

DANI BLANCO



Guillermo Etxebarria

Bernat Etxepare Lizeoko zuzendaria

Irakaskuntza ertaina, azterketak eta euskara Ipar Euskal Herrian

Ikasketak euskaraz egitea erronka da Ipar Euskal Herrian. Kolegioko urteetatik Terminalera arteko ibilbidean ezin da hainbat ikasketa gure hizkuntzan burutu, baina ondoren dator arazo larriena, unibertsitatea euskaraz egin nahi dutenek guztiz kontra baitute haizea.

Kolegioko eta lizeoko ikasketei “Bigarren Mailako ikasketak” deritzaie. Kolegiokoak lau urte irauten dute: 6.a, 5.a, 4.a eta 3.a dira. Hirugarrena orientazio urtea da. Urte bukaeran erabakitzen da ikasleak zein bide hartuko duen bere ikasketetan: lizeo orokorrekoa, bide teknologikoa, profesionala edo ikasketak utzi eta aprendizgoari ekinen dion.

Hirugarrenaren bukaeran, kolegioko ikasketak egin ondoren beraz, bada diploma bat kolegioan egindako ikasketak balioztatzeko. Diploma hau Brebeta da. Brebeta lortzeko hiru azterketa gainditu behar dira. Azterketa hauek ikastetxetik kanpo egiten dira hiru ikasgaiez: Frantsesa, Historia-Geografia eta Matematika. Azterketa hauetan ateratako emaitzez gain, beste gaitan ikastetxean izandakoak ere kontuan hartzen dira.

Euskaraz ikasten den kolegioetako ikasleek, Seaskak Lartzabalen, Ziburun eta Kanbon dituen

kolegioetakoek, delako Historia-Geografiako eta Matematikako azterketak euskaraz pasatzen dituzte. Elebidun bezala ezagutuak diren eskoletakoek, Historia-Geografiako azterketa dute euskaraz pasatzen.

Dena den, diploma hau ez da beharrezko lizeoko ikasketen egiteko. Aldiz, ikasketak bertan behera uzten dituenarentzat edo maila goragoko diplomarik erdiesten ez duenarentzat garrantzitsua izan daiteke.

BATXILERRAREN PRESTAKETA ETA AZTERKETA

Batxilerrari, Ipar Euskal Herriko irakaskuntza sisteman, Bakalorea edo Baxoa deitzen zaio. Diploma edo titulu hau erdiesteko azterketak Estatu mailakoak dira eta ikastetxetik kanpo egiten dira. Bakalorearen prestaketa aldiz, lizeoan egiten da hiru urteko ikasketetan. Hiru Bakalore mota daude: orokorra, teknologikoa eta profesionala. Euskaraz, Iparraldean, Bakalore orokorra prestatzen da bakarrik, Baionan Seaskak duen Bernat Etxepare lizeoan. Nahiz eta Seaskaren asmoa ahal bezain lasterren Baxo teknologikoari eta profesionalari heltzea izan, gaur egun oraindik ez dago Ipar Euskal Herrian ikasketa hauek euskaraz burutzeko aukerarik.

Lizeoan egiten diren hiru urteak Bigarren, Lehena eta Terminala dira. Bigarrenean ikasle

guztiek derrigorrezko gai berak lantzen dituzte. Aldiz Lehenean eta Terminalean, irakaskuntza sail ezberdinen hautua egiten da. Baxo orokorrean adibidez: sail Ekonomiko eta Soziala, Literarioa eta Zientifikoa.

Lehenaren bukaeran Baxoko azterketa batzuk pasatzen dituzte ikasleek: Frantsesa (hiru sailetan), zientziak (sail Ekonomiko eta Soziala eta Literarioa) eta Informatikarako Matematikak (sail Literarioa). Beste gaien azterketak, Filosofiakoa, Historia eta Geografiakoa, hizkuntzetakoa, Fisika eta Kimikakoa, Matematikakoa... Terminalaren bukaeran izaten dira.

AZTERKETEN BILAKAERA

Duela urte gutitik hona, aldaketa nabarmenak egiten ari dira kolegioko ikasketetan, zein lizeokoetan. Kolegioko ikasketen eskakizunak “Socle Commun de Compétences” (gaitasunen oinarri komuna) deritzon xedeetan finkatuak dira. Edukietan oinarritzen ziren ikas-programak orain menderatu beharrezko gaitasunetan oinarritzen dira. Funtsean Europako beste erresumetan emeki-emeki finkatzen ari den bezala. Honek nahitaez Brebetaren aldaketa ekarriko du epe motzera. Brebeteko hiru azterketak oraindik ez badira aldatu ere, gaitasunen izartze proposamen planak abiatuak dira.

Lizeoari dagokionez ere, bi urtetik hona abiatua da lizeoetako erreforma. Aurtengo ikasturtean Bigarrenetan eman da plantan, datorren ikasturtean Lehenetan ere, eta Terminalean 2012-13.



Hegoaldeko unibertsitateetan sartzeko, lizeoan ateratako emaitzak ez zaizkie kontuan hartzen; notazio baremoa ez da berdina; eta Selektibitateko nota goratzeko egiten diren azterketak Hegoaldeko Batxilergo programetan oinarritzen dira”

ikasturtean. Erreforma hau kolegioetakoaren ildo bertsutik doa. Beraz, pentsatzekoa da, erreforma eraginkorra izan dadin baitezpadakoa izanen dela Bakaloreko azterketen erabat aldatzea, bai egin moldean bai edukiari doakionez.

UNIBERTSITATERA BEGIRA

Bakalorea gainditu ondoren, ikasleek Frantziako unibertsitate gehientsuenetako atea irekirik dituzte. Halere, unibertsitate eta unibertsitate-eskola batzuetan lizeoko emaitzak ere kontuan hartzen dituzte.

Unibertsitateko ikasketak euskaraz jarraitu nahi dituztelarik sortzen zaizkie zailtasunak Bernat Etxepare lizeoko ikasleei. Izan ere, atzerrian ikasketen egiteko bete behar izaten diren tramiteez gain Hego Euskal Herriko unibertsitateetan sartzeko finkatzen den nota maila jakin bat gainditu behar baita.


Hego Euskal Herriko unibertsitateetan sartzeko bertako beste ikasleekin lehiatu behar dute, baina baldintza desegokiagotan, desabantaila nabarmenekin:

- Lizeoko ikasketetan ateratako emaitzak ez zaizkie kontuan hartzen.
- Notazio baremoa ez da berdina bi erresumetan; apalagoa Frantziako sisteman.
- Selektibitateko nota goratzeko egiten diren gaien azterketa bereziak Hego Euskal Herriko Batxilergo programetan oinarrituz egiten dira.

Ondorioz, biziki ikasle gutxi dira Ipar Euskal Herrian unibertsitateko ikasketak euskaraz jarraitzen dituztenak. Funtsean, ororen buru, Ipar Euskal Herriko ikasle gehienak kanpora joaten dira unibertsitateko ikasketen segitzera. Hurbilenak Paue eta Bordelera. Baina baita Tolosa edo urrunago ere.

Honek zer pentsa ematen du kanpora ikastera joan beharrean aurkitzen diren ikasleez eta are gehiago euskaraz ikasketen jarraitzeko ezintasunean aurkitzen direnei buruz. ■

**Duten garrantziaz jabetzeko,
faltan izan arte itxoiten dugu maiz**



EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK